

EDITORIALA



Irudia - *Elderly woman [adineko emakumea]*, Chalmers Butterfield
Iturria - CC-BY-SA-3.0, Wikimedia Commons

Ezaguna da arazoa, zahartzaroak bere ajeak ditu. Eta ez da arazo makala, gure gizartea geroz eta zaharroagoa dugu. Eustat edota Gaindegia agentzien arabera, 2030erako biztanleriaren % 30 inguru izango da 65 urtetik gorakoa, Alemania eta Japoniaren antzeko mailetan. Gai honek eragin handia izango du maila sozioekonomikoan, baita ingurune eraikian, hirietan eta eraikin barruetan ere. Izan ere, horiek guztiak egokitu beharrean izango gara, adineko pertsona horrek, dela pertsona osasuntsuak edo dela galera fisiko edo psikiko bat duenak, bere behar eta arazo propioak izango baititu.

Batzuetan kontu txikiak baino ez dira izango, baina beste batzuetan larritasun handiagoko aferak soluzionatu beharra izango dugu. Kasu horietan, adindua den pertsona bera ez ezik, inguruan duen jendea zein ingurune fisikoa berrantolatu behar izaten dira. Nola aurre egin horri guztiari? Gero eta konponbide

berri gehiago daude. Badaude adindutako pertsonari bitzitza errazten dioten gailu eta tresna berriak. Beste batzuetan, eraikuntza-eta arkitektura-neurri sinpleagoekin adinduaren ingurua goxatu daiteke. Gainera, badira ere etxebizitza mota berriak edota egoitzetako espazioa antolatzeko modu berriak, nolabait bertan bizi den adineko pertsona aktiboago izate bidera.

Frogatua baita, inguruneak berebiziko garrantzia duela adineko pertsonen zahartze egoki bat izateko. Ingurune lasai eta irisgarriak onuragarriak dira adineko pertsonarentzat. Dena dela, fisikoki neurgarriak diren elementuez gain, badira kontuan hartu beharreko beste kontu batzuk, esaterako, pertsona horrek jaso dezakeen atentzioa eta babesa. Zenbaki honetan hainbat kasu azalduko dira, adibide egokiek eta ekidin beharreko egoerekin.